



etakitto.eus

(<https://etakitto.eus/>)

...eta kitto! azken pdf-a (<https://etakitto.eus/wp-content/uploads/2018/12/1081-baru.pdf>)

“Euskaldunok munduan zehar” (Enrike Zuazua)

🔍 Iritzia (<https://etakitto.eus/category/iritzia>)

2018,
ABE
23



Mendeetan zehar mundua Euskal Herria laga duten euskaldunez bete da. Horren herri txikia izanik, harrigarria da euskaldunok noraino iritsi garen eta utzi dugun aztarna. Horietako batzuek arrasto sendoa utzi dute, hizki handiz idazten den historian. Horrela, sarritan, euskal abizenen hariari tira egin eta istorioa aberatsak agerian geratzen dira.

Artikulu hau sinatzen duenarenak, adibidez, Mexikoko Villa del General Zuazua hirira garamatza, Nuevo León estatuan, Juan Nepomuceno Zuazua Esparza jeneralaren omenez (Mexiko, 1820-1860) izendatutakoa.

Joan diren gehienek, ordea, epikatik urruti, beren anonimotasunean, eguneroko lan gogorrarekin bizimodua duintasunez atera eta beren ondorengoei lekukoa pasa diete, besterik gabe, bizitzaren oinarritzko definizioaren arabera. Zalantzarik gabe, mila, agian milioika, istorio idatzi ahalko genituzke bizitza berri bat beste nonbaiten garatzeko asmoarekin lur hau utzi zutenen esperientziekin.

Gaur egun ere, gero eta euskaldun gehiago badoaz, Euskal Herritik kanpo bizitza berria garatzeko asmoz. Izan ere, estatistiken aurreikuspenen arabera, hurrengo 15 urteetan ehun mila biztanle inguru galduko ditugu. Heriotzen kopuruak jaiotzenak gaindituko ditu, gaur jadanik gertatzen den bezala, eta etorkinen fluxua ez da nahikoa izango galera hori konpentsatzeko. Biztanleriaren galeraren dinamika horrek, arrazoi demografiko hutsez gain, badu gure dimentsio txikiekin zerikusia. Krisi garai hauetan areagotuta, agerian geratu da gure gazteek eta profesionalek helmuga berrien beharrea daudela.

Gaur egun, atzerrian egon arren, asko ez dira urrun, Espainiako eta Europako beste herrialdeetan baitira eta, horrela, sarritan, garraibideetan aurki ditzakegu. Horiez gain gero eta ugariagoak dira, baita, hemen bizi arren astean zehar euren bizitza profesionala kanpoan egiten dutenak. Beste batzuk, ordea, Ameriketara, Australian edo Asian bizi dira, adibidez, eta maiztasun gutxiagoz ikusten ditugu.

Hori zergatik gertatzen zaigun aztertzea merezi du, bai. Autogobernua ez da nahikoa izan gure talentuaren hemorragia mozteko. Tresnak ez dira nahikoa geureak hurbil gordetzeko, borondaterik ez denean. Ondo bizi gara bertan gaudenok. Baina adi egon beharko genuke Euskal Herria are gehiago txikitu ez dadin. Zenbakiak horrela diote. Baina ez da zenbaki kontua: borondatearena, gogoarena baino.

Gero eta euskaldun gehiago ari dira gure mugez bestalderako bidea hartzen eta, sarritan, hoberen trebatutakoak dira. Etorkizun hurbilean Euskadik faltan botako duen biztanleriaren atal garrantzizkoa galtzen ari gara, baita euskararen normalizazioaren prozesuan ere. Bertan ditugun “aho-biziak” galdu ezkerro, euskararen bidea ez da erraztuko, ez. **Badugu zeregina.**

 [Print \(https://etakitto.eus/iritzia/euskaldunok-munduan-zehar-enrike-zuazua.html#print\)](https://etakitto.eus/iritzia/euskaldunok-munduan-zehar-enrike-zuazua.html#print)

 [Email \(https://etakitto.eus/iritzia/euskaldunok-munduan-zehar-enrike-zuazua.html?share=email&nb=1&nb=1\)](https://etakitto.eus/iritzia/euskaldunok-munduan-zehar-enrike-zuazua.html?share=email&nb=1&nb=1)

 Partekatu 2

 G+ Cc